

LEHEN HIZKUNTZA ARABIERA DUTEN HAURREN EUSKALDUNTZEA D EREDUAN

A. EGILEA: Maialen Iantzi Danboriena

B. GRADUA: Euskal ikasketen gradua

C. IKASTURTEA: 2014-2015

D. TUTOREA: Ibon Manterola Garate

E. GRADUKO JAKINTZA ARLOA: Euskal hizkuntzalaritza

AURKIBIDEA

Laburpena	2
Hitz gakoak	3
1. Sarrera	3
2. Etorkinak eta eskola	5
3. Baztango bi ikasle etorkinen euskalduntzearen azterketa	8
3.1 Testuinguru soziolinguistikoa Baztanen eta Elizondon	8
3.2 Baztango eskoletako ikasle etorkinen kopurua	11
3.3 Integraziorako bertze zenbait tresna	13
3.4 Ikasle etorkinen datuak	14
3.5 Ikasleen ekoizpenen bilketa	15
4. Ikasleen ipuinen azterketa	16
4.1 Ipuinen luzera	17
4.2 Planifikazioa	18
4.3 Testualizazio mekanismoak	21
4.4 Alderdi gramatikala	24
4.5 Baztango euskalkiko lexikoa eta gaztelerazko lexikoa	27
5. Emaizen azterketen sintesia	28
6. Ondorio orokorrak eta hurrengo lanetarako proposamenak	30
7. Bibliografia	32
8. Eranskinak	33
LABURPENA	

Lan honetan Elizondoko San Francisco Javier eskola publikoko bi ikasle etorkinen euskalduntzea aztertzen da. Ikasle hauek etxetik euskaldunak ez direla kontutan hartuta (arabiera dute ama hizkuntza), lanaren helburu zehatza ikasleen baldintza eta testuinguruak abiapuntu izanik, klasean ekoizturiko idazlanen azterketa izango da (ikasle etorkin zein bertan jaiotakoen idazlanak aztertuko dira). Horrela, txikitatik euskaraz eskolatu ondoren, ikasle etorkinek dauzkaten trebetasunak azaleratu nahi dira, ipuin kontaketa dauzkaten gaitasunak eta zailtasunak aztertuz. Horretarako, klase-kideak hiru multzotan sailkatuko dira, beraien ama hizkuntzaren arabera: lehen hizkuntza euskara dutenak, gaztelera dutenak eta arabiera dutenak. Azterketa honen bitartez, ikasle etorkinek Euskal Herrian jaiotako ikasleekin dituzten berdintasun eta aldeak azaleratu nahi dira.

Lanarekin abiapuntua ikerketan kokatzeko baliagarria den sarrera orokor bat izango da. Bertan, gai honen inguruan egin diren aurretiko lan batzuk aipatu eta lana bideratzeko beharrezkoak den informazio garrantzitsua emango da. Errate baterako, eskolak ikasle etorkinekin dituen erronkak zein diren, ikerketa honetan parte hartuko duten ikasleak zein egoeratan kokatu behar ditugun, etab. Ondotik, etorkinen eta eskolaren inguruko zenbait zertzelada emango dira. Hau da, eskolak duen pisuaren garrantzia azpimarratuko da, Nafarroako ikasle etorkinen datuak zein diren eskainiko dira, etab. Jarrian, bi ikasle etorkinen testuen azterketa burutzeko oinarritzko informazioa plazaratuko da, testuinguru osatzeko alderdi batzuetan zentratuz: Baztan eta Elizondoko testuinguru soziolinguistikoa osatuko da (bertan euskararen presentziaren zenbatekoa den erakusten duten datuak emanez), Baztango eskoletan D ereduak duen indarra aztertuko da, etorkinen integratzeko Baztanen dauden tresnak zein diren erakutsiko dira, ikerlanaren ardatza diren bi ikasleen inguruko datu esanguratsuenak eskainiko dira eta lanean burutuko denaren azalpena egingo da.

Ondotik, bildutako ekoizpenak aztertuko dira, hizkuntzaren alderdi testual-diskurtsibo eta gramatikal zenbait azaleratuz. Honako puntu hauetan zentratuko da azterketa: ipuinen luzera (laburrak, ertainak edo luzeak), testuen planifikazioa, testualizazio mekanismo zenbaiten azterketa (hasiera eta amaierako formula kanonikoen erabilera, denbora antolatzaileak, etab.), alderdi gramatikal zenbait eta Baztango euskalkiko zein gaztelarako lexikoaren presentzia. Gero, eskuraturiko zenbait emaitza oinarri harturik, ume etorkinak txikitatik D ereduan eskolatu arren, beren ekoizpenak gainerako ikasleekin alderatzerakoan desberdintasun zenbait badaudela

ondorioztatuko da (txikiak eta ikasleen arabekoak izan arren). Lanarekin akitzeko, ikerketa burutzerakoan emandako pausuetan hobetu daitezkeen zenbait alderdi badaudela ondorioztatuko da eta honekin batera lan berri zenbait egin ahal izateko proposamen batzuk ematen dira laburki.

HITZ GAKOAK: Eleaniztasuna | Ikasle etorkinak | D eredua | Euskalduntzea | Ipuinak

1. SARRERA

Ugariak dira aspaldiko urteotan haur etorkinak eta hauen eskolatzearen inguruan egindako lanak. Lan hauek gainera, esparru zein ikuspuntu desberdinak ukitzen dituzten, eta denak aipatu ez arren, hona hemen hauetariko zenbait: Azurmendiren (2006) *Ikasle etorkinak eta euskara*; Manterola eta Lardizabalen (2009) *Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina*; Manterola eta Berastegiren (2011) *Hizkuntza gutxituen erronka* liburua; etab. Eta ikuspuntua pixka bat zabalduaz, ez dira gutxi ere eleaniztasuna zentzu zabalago batean hartzen dutenak ere, bi aipatzearren: Azkoaga eta Idiazabalen (2010) *Hizkuntza eta heziketa prozesuak: hezkuntza eleaniztuna* liburua eta Idiazabal eta Manterolaren (2008) *Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzaren irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa* artikulua.

Aipaturiko tematika sare honetan kokaturik, lan honen helburua eskualde euskaldun batean, D ereduaren eskolaturiko bi ikasle etorkinen euskararen ikaskuntza aztertzea da. Ikasle hauen euskalduntze testuinguru eta baldintzak kontutan harturik, klasean ekoizturiko ipuinak izango dira aztergai lanean. Horrela, txikitatik D ereduaren murgildurik ibili ondoren ikasle etorkin hauek lorturiko trebetasunak analizatu nahi dira, ondoren, ahal den neurrian, hauen idazlanak beraien ikaskideek egindakoekin parekatuz.

Bide honetatik jarraituz, hizkuntzak etorkinen integrazioan eta tokian tokiko murgilketa prozesuan duen inportantzia azpimarratzea beharrezkoa da. Are gehiago, Manterola eta Lardizabalek (2009: 1513) diotenez, ikasleak eskolan erabiltzen den hizkuntza menderatzea arras baldintza garrantzitsua da eskolan emaitza onak lortzeko. Gainera, etorkinak hartzen duen gizarteko hizkuntza (edo hizkuntzak) ikasi ezean, nekez bertakotuko da kanpotik datorrena. Manterola eta Lardizabalek (2009: 1513) gaineratzen dutenez, garrantzitsua da etorkina zein urtetan murgildu den bizileku berriko eskola ereduaren ere. Faktore honen arabera, etorkin zenbaitentzat iritsi berritan

menderatzen ez duten hizkuntza batean beharrezko diren eskola-edukiak menperatzea ez da erreza izaten eta.

Honen haritik, Etxeberria eta Elosegiren (2009) lanetik harturik, Manterola eta Lardizabalek (2009:1513) gogorarazten digute, euskal eskolak ikasle etorkinekin dituen erronkak zein diren: ikasle etorkinek euskara ikastea, jatorrizko hizkuntza mantentzea eta eskolan arrakasta lortzea (honek ahalbidetuko baitu etorkinen gizarte eta lan integrazioa).

Egindako lanean murgilduaz, ikerketa honetan parte harturiko bi ikasle atzerritarrek partekatzen dituzten baldintza garrantzitsu batzuk nabarmendu behar dira, aitzinago sakonago aztertuko diren arren: biak Euskal Herritik kanpo sorturikoak dira, beraien ama hizkuntza ez da euskara ezta gaztelania ere, D ereduan eskolaturik daude txikitatik eta honetaz gain, murgilketa ahalbidetzen duten eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzen dute biek. Emandako ezaugarri sorta honetan, azpimarragarria da beraien ama hizkuntza irakasleek hitz egiten ez dakiten hizkuntza bat izatea. Izan ere, honek zuzenean mugatuko du ume hauen ikasketa prozesua, beraien ama hizkuntzak ez baitu inongo presentziarik izango ikasgela barruan, bi ikasleen ahoetan ez balin bada. Oinarri honetatik abiatuko da egindako lana, beti ere bailara euskaldun batean bizi direla kontutan hartuz.

Lanean murgildu aitzinetik, honen egitura gainetik azaltzea komeni da. Buruturiko sarrera honen ondotik, haur etorkinei eta eskolatzeari buruzko zenbait zertzelada emango dira. Jarraian, lanean parte hartuko duten bi ikasle etorkinen hizkuntza erabilera baldintzatzen duten faktoreak azalduko dira, zenbait puntutan zentratuaz: ikasleen testuinguru soziolinguistikoa, eskolatzearen ezaugarriak, atzerritarren integrazioa bideraturiko bertze zenbait tresna (guraso eskolak, elkarteak, etab.), ikasle etorkinen datu garrantzitsu zenbait eta egindako ekoizpenen bilketa. Gero irakasleek egindako ipuinen azterketa burutuko da, hauek bertan jaiotako irakasleek eginekoekin parekatuaz. Honen ondotik, ikasle etorkinen emaitzak aztertutako dira eta hauetan oinarrituz ateratako ondorioak azaleratu dira. Akitzeko, egindako lana abiapuntu gisa harturik hurrengo lan posible zenbaitentzako proposamenak egingo dira.

2. ETORKINAK ETA ESKOLA

Atal honetan Euskal Herriko etorkinen datu zenbait eman ostean, haur etorkinak eta beraien eskolatzea izango da mintzagaia.

Aierdik (2008) emandako datuetan oinarrituz, Hego Euskal Herriko etorkinen kopurua igo egin zen 1998. urtetik 2008 urte bitartean (200.000 etorkin etorri ziren hamar urte horietan). Datuak eguneratzea aldera, Ansaren (2014) arabera, etorkinen kopurua 2012. urtean iritsi zen gorengo puntura, 776.850 baitziren urte honetan hegoaldeko lau herrialdeetan bizi ziren etorkinak. Hurrengo bi urteetan ordea, kanpotik etorritakoen kopuruan jaitsiera txiki bat eman zela dio Ansak (2014), 2014an 759.500 baitziren etorkinak. Autore honek nabarmentzen duenez, jaitsiera txikia izan arren, egonkortze joera bat salatzen dute datuek.

Hari honi jarraituz, ez da atzendu behar, etorkinen igoera dela eta gure herrietako eleaniztasuna eta honekin batera etorri den kulturantzitasuna kudeatzea erronka handia bilakatu dela. Ildo honetan, Manterola eta Berastegiren (2011: 107) arabera, eskola eleaniztasuna da erronka garrantzitsu hauetariko bat, ikastetxeetan bertan, etnia, kultura eta hizkuntza ezberdinen arteko elkartrukeak eta elkarrekiko harremanak eguneroko ogi bilakatu baitira. Hori horrela, gizartean topa dezakegun aniztasun linguistiko eta kulturalaren adierazgarri ezin hobea izan daiteke eskola.

Gauza jakina da Euskal Herrian euskara bertze zenbait hizkuntzekin elkarbizitzan dagoela. Hala nola, frantsesa eta gaztelarekin, baina baita azken urteetan geroz eta gehiago entzuten diren bertze zenbaitekin ere: errumaniera, txinera, japoniera, etab. Honi loturik, Manterola eta Berastegik (2011: 107), Osa eta Aierdiren (2009) erranak ardatz harturik, hizkuntza eleaniztasun honek euskarari lehendik zeuzkan arazoez gain berririk gaineratzen ez diola dakarkigute gogora. Honekin erabat lorturik, ezin dugu aipatu gabe utzi etorkinen eta euskararen hartu emana ardatz harturik, Aierdiren (2008) lanak eskaintzen digun informazioa: etorkin gehienak euskarak indar gutxi zuen herrietan finkatu ziren berak azterketa burutu zuen urteetan, eta hori horrela, euskararekin zuten kontaktua nahiko urria izan ohi zen. Beraz, nahiko nabarmena da atzeritarren hizkuntza aniztasunak, euskararekin hartu-eman txikia izanik, honi sorturiko arazoak ere ezin direla handiak izan. Gure ikerketari dagokionez, kontutan hartu behar dugu euskarak erabateko indarra ez badu ere Elizondon, Baztango bailaran

orokorrean euskararen presentzia handia dela eta beraz, bertako etorkinek euskararekiko egunerokotasunean hartu emana dutela¹.

Testuinguru honetan, etorkinei euskara ikastearen garrantzia transmititu beharra azpimarratzen dute Manterola eta Berastegik (2011: 107), beti ere, beren kultura eta hizkuntza baztertzeko arriskuen inguruan tentuz jokatuaz. Izan ere, euskara zabaltzearekin batera etorkinen kultura eta hizkuntza ere sustatu behar dira, jatorrizko hizkuntzak mantendu eta bultzatuaz, bizikidetzaren harmoniatsua batera heltzeko xedearekin.

Euskal Herriko immigrazio datuei dagokionez, iragan hurbilean Espainia estatuko etorkinak ohikoak zirela diote Manterola eta Berastegik (2011: 108), baina urteek aitzinera egin ahala, etorkinen jatorria aldatuz joan da, geroz eta ohikoago bihurtuz Europar Batasunetik kanpo datorren immigrazioa. Ansa (2014) emandako datuek, baieztapen hau indartu egiten dute. Honen arabera, Espainian sortu eta Euskal Herrian bizi zirenak, etorkin guztien %82a ziren 1998. urtean, baina, %55a 2014. urtean. Beraz, honek urtetik urtera Espainiar jatorriko etorkinen kopurua gutxituz doala salatzen du. Nafarroan zentratuaz, etorkinen goranzko joera ere nabaria da. 1998an %0'81 izatetik, 2007an %9'3 izatera pasatu zen etorkinen kopurua, latinoamerikatik etorririkoak zirelarik gehiengoa. 2014an ordea, Nafarroako Gobernuak kaleraturiko datuen arabera, biztanleriaren %13,5 etorkina (86.240 biztanle) zen. Gauzak horrela, Uranga eta besteren (2008) lanak kontutan harturik, Manterola eta Berastegik (2011: 112) Hegoaldeko Euskal Herriko lurretan 100 hizkuntza mintzatzen direla diote. Datu hauek aintzat hartzekoak dira gure ikerketa kokatzerakoan, eragin zuzena baitu etorkinen murgilketa prozesuak beraien inguruko egoera soziolinguistikoarekin. Gainera, emandako datuak etorkizunera begira ere gogoan hartu beharrekoak dira, garbi ikusten baita etorkinen kopurua igoz doala urtetik urtera, eta beraz, hizkuntza aniztasuna ere geroz eta aberatsagoa bilakatuko da gure karraketan.

Honi atxikirik gaineratu behar da ikasle atzerritar ugariaren kasuan etxeko hizkuntza eta eskolako hizkuntzaren artean eten nabarmen ematen dela, eta joko honetan berebiziko garrantzia daukala eskolako hizkuntzak karrikan zein aisialdian daukan presentzia eta garrantziak. Manterola eta Berastegik (2011: 119) dakarten adibide bat jartzearen, zenbait etorkinek etxean arabiera egiten dute (hain justu gure

¹ 3.1 puntuan sakonago aztertuko dira Baztango euskararen egoeraren inguruko datuak.

ikasleek bezala), eta eskolan berriz euskaraz mintzatzen dira. Kasu honetan erabateko eragina dauka eskolaz kanpo ere euskaraz jarduteak, horrela eskolako hizkuntza eta karrikakoaren artean gutxienez, jarraipena badagoela ikusten baitute ikasleek. Ildo beretik autore hauek Serra eta Villaren (2005) hitzak ekartzen dituzte gogora, esku tartean dugun lanarekin ere ezin aproposago uztartzen direnak:

Buena parte del éxito o fracaso en la promoción de competencia lingüística recae en la posibilidad de que se establezcan continuidades entre los diferentes contextos en los que cada persona utiliza unas lenguas determinadas.

Gure ikerketa eremuan zentratuaz eta lehendik errandakoa gogora ekarriz, ezin dugu atzendu eskolak bilakatu direla immigrazio prozesuaren ispilu. Hau indartze aldera, 2009ko Nafarroako Gobernuak datuek erakusten zutenez, ikasle etorri berriak 12.899 ziren, populazio osoaren %12,53a. 2014. urtean emandako datuen arabera berriz, 2012-13 ikasturtean unibertsitatekoak ez ziren ikasketetan matrikulatutako ikasle guztietatik %9,2a etorkinak ziren, estatuko batez bestekoa baino hamarren bat gehiago.

Eskola eremuan etorkinen ereduaren autuan, joera desberdinak hauteman daitezke. Nafarroan erraterako honako datuok ematen dituzte Manterola eta Berastegik (2011: 114): etorkinen %84'05 G eremuan matrikulatzen dira (dena gazteleraz), %10'62 A eremuan (ikasgai guztiak gazteleraz euskarako ikasgaia izan ezik), %1'6 D eremuan eta %3,73 British eta TIL-TA eremuan (ikasgaiak gaztelera eta ingelesez)². Horren datu zehatzak eman ez arren, Nafarroako Gobernuak 2014. urtean egindako txostenean, oraindik ere ikasereduen aukeraketa bide berdintsutik doala baieztatzen du, 2013-14 ikasturtean, etorkinen %80a G eremuan matrikulatu baitzen. Honi loturik Goikoetxeak (2014), *Euskararen eskailerak* artikuluan Euskal Herriko zonalde desberdinetan banaturik atzerritarren artean nagusitzen diren hizkuntza ereduak zein diren zehazten du, eta datu hauen arabera, gure ikerketa eremuan (Baztanen), murgiltze ereduak nagusi. Hau da, haur hezkuntzatik lanbide heziketara bitartean ikasten ari diren ikasle etorkinen %80a baino gehiagok D ereduaren aldeko apustua egiten dute. Honek, lan honetan ardatz hartuko diren bi ikasleen egoera kokatzeko marko zehatz bat eskaintzen digu. Datu hauek garbi erakusten digute, aztergai dugun eskolatzeko ereduak ez dela inolaz ere marjinala, gehiengoak egiten duen hautua baizik.

² Kontutan hartu behar da Manterola eta Berastegiren lana 2011an egindakoa dela eta beraz, datu hauek ez daude erabat eguneratuak. Hala ere egoeraren hurbilketa bat egiteko balio diezagukete.

Atal honekin akitze aldera, Manterola eta Berastegik (2011: 116) diotenaren arabera, Euskal Herrietako eskoletan nagusitzen diren bortz hizkuntzen artean, gaztelera, portugesa eta arabiera dira nagusi. Hau esanguratsua da, aztergai ditugun bi ikasleen ama hizkuntza arabiera baita. Hori dela eta, ikerketa honetan parte harturiko ikasleen datuak arras txikiak izan arren (bi haur soilik), azterturiko fenomeno orokorra ez dela batere anekdotikoa kontutan hartu behar da. Aitzinetik erran dugunaren arabera, Manterola eta Berastegiren (2011: 112) datuek erakusten dute, Hego Euskal Herrian 100 hizkuntza mintzatzen direla, eta lan honetako ikasle etorkinen ama hizkuntza eskoletan nagusitzen diren lehenbiziko bortzen artean egoteak, ikergaiari berebiziko indarra ematen diola ageriko kontua da.

Akitzeko, azpimarratu beharra dago eskolaren garrantzia etorkinen integrazioan, eta baita euskararen normalizazioan ere. Etorkinek beraien hizkuntza eta kultura mantenduz, bertako hizkuntza ikastea arras garrantzitsua izango da, honek ahalbidetuko baitu hein handi batean, gizartean beraien integrazioa eta baita bertako hizkuntzaren normalizazioa ere (zer erran euskara bezalako hizkuntza gutxitu baten kasuan).

3. BAZTANGO BI IKASLE ETORKINEN EUSKALDUNTZEAREN AZTERKETA

Atal honetan zehar ikerketaren oinarri izango diren IE1 eta IE2³ ikasleen inguruko zenbait xehetasun emango dira, beraien testuen azterketa kokatze aldera.

3.1 Testuinguru soziolinguistikoa (Baztanen eta Elizondon)

IE1 eta IE2 Elizondon bizi dira, Baztango bailaran. Bailara hau Nafarroako iparraldean kokatzen den udalerrria da, Foru Erkidegoko zabalena. Hamabortz herrik osatzen dute Baztan eta Elizondo da hauen arteko nagusia, 2010eko eroldaren arabera 3.543 biztanle dituena.

Udalerrri osoa aintzat hartuta, Estatistika Institutu Nazionalaren arabera, 2014. urtean Baztanen 7.848 lagun bizi ziren. Biztanle hauen artean euskararen ezagutzari dagokionez, Paula Kasares, Baztango Udaleko euskara zerbitzu teknikariak helarazitako datuak izango ditugu oinarri. Hauek erakusten dutenez, 2011. urtean Nafarroako

³ Laburdura hauen bitartez izendatuko dira ikasle etorkinak: IE1 (ikasle etorkina bat) eta IE2 (ikasle etorkina bi).

gobernua egindako Nafarroako mapa soziolinguistikoaren arabera, hauek dira Baztango datuak:

1. taula: Euskaraz ongi moldatzen diren baztandarren datuak (2011)

Urtea	2011
euskaraz ongi %	% 74,90
Euskaraz nekez%	% 13,60

(Kasares, 2015)

Datuak adin taldeka eta faktore desberdinak kontuan hartuta azterturik, honako hauek dira Nafarroako Gobernuak 2011. urtean emandako emaitzak:

2. taula: Euskarazko datuak adin taldeka

Adin taldeak	2-16	17-25	26-45	46-65	> 66	Guztira
Euskaraz ongi %	% 87,90	% 87,20	% 75,80	% 63,30	% 74,30	% 74,90
Euskaraz nekez %	% 4,90	% 2,90	% 13,10	% 20,20	% 16,40	% 13,60
1. hizkuntza euskara %	% 51,50	% 43	% 61,30	% 62	% 67	% 59,80
1. hizkuntzak eus.+gaz. %	% 21,40	% 26,40	% 12,80	% 8,10	% 11,30	% 13,70
Etxeko hizkuntza eus. %	% 50,80	% 39,80	% 45,10	% 43	% 48	% 45,40
Etxeko hizkuntza eus.+gaz. % ⁴	% 19,80	% 11,80	% 24	% 12,60	% 13,40	% 17,10

(Kasares, 2015)

Beraz, datuek islatzen dutenez, Baztan bere osotasunean harturik, biztanle gehiengoa euskalduna duen bailara da. Honen erakusgarri da adin tarte guztiak kontutan izanik, 2011. urtean euskaraz ongi moldatzen direnak biztanleen %74'9a izatea. Honetaz landa, ama hizkuntza euskara duten biztanleak ere erdia baino gehiago dira (%59'8) eta euskara, gaztelerekin batera dutenak %13'7a. Nolanahi ere, herrien arabera badira aldeak, eta hauen artean Elizondo historia hurbilean erdaldundu zen

⁴ Talde honetan sartzen dira etxean euskara eta gaztelera ikasi ez arren, datuak bildu zirenean etxean bi hizkuntzak baliatzen zituztenak. Hau da, guraso euskaldun berriak zituen jendea, haurrideekin euskaraz hitz egiten zutenak baina gurasoekin ez, etab.

herrien artean kokatzen da. Udaleko euskara teknikariak emandako datuen arabera, 2011ko datuak ez daude herrika sailkaturik eta hori dela eta, 1996. urteko datuei heltzea bertzerik ez zaigu gelditzen, ideia orokor bat egiteko bertzerik ez bada ere. Hauek erakusten dutenez, urte horretan Elizondon biztanleen %64ak euskaraz ongi zekien, %13,3ak nekez, eta %21,3ak euskaraz ez zekien deus ere⁵.

Datu hauek osatze aldera, 1993tik hasita lau urtetatik behin zenbait herritan egindako kale neurketak hartu ditzakegu hizpide⁶, beti ere kontutan hartuz honek ez digula erakusten baztandarrak nola mintzaten diren, baizik eta Elizondoko karrketan zer entzuten den une jakin batean. Elizondon 1993tik 2008ra egindako kale neurketek, emaitza hauek eman dituzte:

3. taula: Elizondokok kale neurketen emaitzak (1993-2008)

Urtea	1993	1997	1999	2001	2003	2006	2008
Euskararen erabilera %	%31,1	%36,7	%34,5	%43,2	%29,8	%39,4	%34,1
Haurrak	%47,4	%68,9	%28,6	%43,9	%46,6	%53,4	%36
Gazteak	%22	%20,9	%46,8	%62,9	%47,2	%53,1	%52,2
Helduak	%25,4	%24,7	%28,3	%31	%16,8	%30,1	%30,1
Adinekoak	%38,7	%77,8	%51,9	%83,3	%54,6	%39,7	%47,1

(Kasares, 2015)

Taulako datuek erakusten dutenez, urteen joanean gora behera handiak nabarmendu daitezke kale neurketen emaitzetan. Erraterako azpimarragarria da 1993an adinekoen %38'7ak erabiltzea euskara, eta lau urte beranduago bikoitza baino pixka bat gehixeago (%77'8) izatea erabilera. Hala eta, datu orokorrek erakusten dutenez ez da

⁵ Udaleko Euskara Teknikariaren arabera, datu hauek bildu zirenetik gaur egun arte aldaketa handiak jasan dira eta egun, euskaraz ez dakien herritarren ehuneko handitu dela azpimarratzen du.

⁶ *Euskararen Kale-erabileraren Neurketak* herri bateko hizkuntza erabilera behaketa zuzenaren bidez zehazten du, karrikan aditzen diren hizkuntzak jasoz.

alde nabarmenik ageri 1993ko emaitzetatik 2008koetara. Neurketen arabera euskararen erabileran %3a igo da, %31'1etik, %34,1era, hain zuzen ere.

Testuinguru soziolinguistikoarekin akitzeko, Baztanen udalekuak eta aisialdi jarduerak euskara hutsean burutzeko aukera badagoela erran beharra dago. Honetaz landa, irrati bakarra dago eskualdean, euskara hutsean ekoizten dena (*Xorroxin irratia*) eta baita euskarazko aldizkari bat ere (*Tiipi ttapa aldizkaria*). Administrazio, udaleko zerbitzu, etab.-ei dagokionez, euskarak ere badu bere lekua (gaztelarekin batera), eta aitzinago sakonago aztertuko badugu ere, eskualdeko eskoletan D eredia da nagusi.

3.2 **Baztango eskoletako ikasle etorkinen kopurua**

Arestian erran gisara, Baztan hamabortz herrik osatuta dago Beraz, kontutan izan behar da Elizondon dauden San Francisco Javier eskola publikoa eta ikastolaz gain, herrietako eskola txikiak era badaude. Aipaturiko eskola hauetan, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza egiteko aukera dago, derrigorrezko bigarren hezkuntza egiteko berriz, ikasle guztiak Lekarozko institutuan elkartzen dira.

Guztira herrietako eskola txikiak hamar dira, hauetan ikasle etorkinak horrela banatzen direlarik: Almandozen, Zigan, Arraiozen, Arizkunen, Azpilkuetan, Erratzun, Gartzainen eta Oronoz-Mugairin ez dago ikasle etorkinik. Amaiurren ere etorkinik ez badago ere, bertan ikasten duen familia baten etxeko hizkuntza frantsesa da. Iruritan berriz, bi ikasle daude jatorri txinatarrekoak. Eskola hauetan guztietan D eredia da aukera bakarra.


Elizondoko ikastetxeei dagokienez, Baztan ikastola dago batetik. Bertan, bi haur latino amerikar, Marokoko bi anai-arreba eta guraso euskaldunetako familia batera etorritako jatorri eskoziarreko bi ikasle daude.

Akitzeko, gure ikerketa burututako Elizondoko eskola publikoa da aipatzeko falta den bakarra⁷. Hemen eredu eleaniztuna izenekoan eta A eredian ikasteko aukera dago. Eredu eleaniztunean daude murgildurik gure ikasleak. Honetan, D eredia da

⁷ Bertako idazle etorkinen kopurua eskuratzea ezinezkoa izan da, ikerketak helburu partikular bat izanik, eskolak ezin ditu eta datu horiek zabaldu.


nagusi baina ingelesa indarketa dauka, IIP⁸ deitzen dena. Hona hemen eskolako web orri ofizialetik harturiko taula batean adierazita eredu honetan hizkuntza bakoitzaren presentzia zenbatekoa den⁹:

1. grafikoa: IIP eredia



Ikusiriko datuak ikusirik, testuinguru honetan kokatu behar ditugu gure ikasleak, beti ere kontutan harturik etorkinen kopuru handi bat, edozein eskoletan eskolaten delarik ere D ereduaren murgiltzen dela. Honen erakusgarri dira Kasaresek (2015) Baztango Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasereduen bilakaeraren inguruan emandako datuak.

2. grafikoa: Ikasereduen bilakaera Baztanen (1987-2013)



(Kasares, 2015)

⁸ Ingelesa Ikasteko Programa. Curriculumaren hiru hizkuntzak metodologia berarekin lantzen dira, hizkuntza batean ikasten dena bertzeetan orokortuz. D ereduaren barruan kokatzen da eredu hau, hori dela eta, ikasteko lehenengo hizkuntza beti euskara da.

⁹ San Francisco Javier eskola publikoa:

<http://cpelizondoip.educacion.navarra.es/web/index.php/eu/eleaniztun-eredua.html>

Kasaresek (2015) gaineratzen duenez, azken bi ikasturteetan gainera, lehen aldiz hiru urterekin eskolaturiko ikasle guztiek D ereduaren aldeko apustua egin dute. Argi dago bada, etorkinek ere, bertako ikasleen bide beretik jotzen dutela ikasereduen hautaketan. Hau azpimarragarria da, Manterola eta Berastegik (2011: 114) erraten baitute EAEn zein Nafarroan, joera orokorra ez dela etorkinek bertan jaiotako ikasleek bezainbertze jotzea D eredura. Honen erakusgarri dira, autore hauek 2011. urtean emandako datuak: Nafarroako populazioaren %23'73ak D ereduari ikasi zuen 2011an baina etorkinak soilik kontutan hartuz gero, %1'6a izan ziren eredu honetan eskolaturikoa. Beraz, ikusitakoa ikusirik, joera kontrajarriak hauteman daitezke Baztango etorkinen eta Nafarroa osoko etorkinen ikasereduen aukeraketan.

3.3 Integraziorako bertze zenbait tresna

Ikasle etorkinak eskolako murgilketa ereduari sartzeko aukera izateaz gain, Baztanen bertze tresna batzuk ere badaude jatorriz kanpoak diren integraziorako bideratuak. Lehena guraso taldea deiturikoa da. Hau Udal teknikariek bideratzen dute, eta bertan jatorri anitzeko eta euskararekiko hurbiltasun maila desberdinetako gurasoak elkartzen dira, eta denen artean lankidetzan, gurasoentzako kezka iturri diren zenbait arlo landu nahi dira. Hori horrela, hizkuntza eredu desberdinak, eleaniztasuna, ezagutzen ez den hizkuntza batean bere seme-alabekin etxeko lanak egiteko kezka, etab. izan ohi dira abiapuntu talde hauetan.

Bigarrena, Topagune Elkarteak da. Elkarte honek euskararen sustapena du helburu nagusia, eta horretarako euskaraz bizitzeko egitasmoak prestatu eta garatzen ditu. Hego Euskal Herri guztian zabaltzen den ekimen bat da, Nafarroan, Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituelarik banatuta elkarteak. Taldekideek halaber, haur zein gazteei aisialdirako euskarazko aukerak eskaintzen dizkiete, euskarazko kultur jarduerak antolatzen dituzte, etab. Dimentsio handiko taldea da, bazkideek antolatzen dituzten ekintzetan 7.350 haur inguru biltzen baitira (haien artean aipaturiko Baztango taldea). Etorkinen murgilketan garrantzi handia du talde honek, bertan jatorri desberdinetako haur ugari parte hartzen baitute, beti ere euskara erabiltzeko nahia dutelarik denek lotura. Adibide gisa eta errandako hau indartzeko, 2014. urtean Baztanen Topagune Elkartearen parte hartu zuten haur eta gazte guztiak atzerritarrak ziren: Portugalekoak, Hego Amerikakoak, Afrikakoak eta Marokoko bi.

Hirugarren eta azkenik, udalak antolaturiko bertze zenbait ekimen ere badaude. Haien arten batzuk aipatzearren: euskara indartzeko egiten diren kanpaina ugariak, administrazioan eta udalaren eskutik atzeritarrei euskaraz bizitzen laguntzeko ematen zaizkien laguntzak eta udan euskara hutsean antolatzen diren udaleku zein jostaldiak.

3.4 **Ikasle etorkinen datuak**

Ikerketa burutzeko ardatz izango diren jatorri atzeritarreko bi ikasleen datuak azaleratuko dira atal honetan¹⁰. Bakoitzaren ezaugarrietan murgildu aitzinetik, kontuan hartu behar da biak San Francisco Javier eskola publikoko D eredu (IIP) ikasleak direla eta elkarrekin ikasgela berean daudela, derrigorrezko lehen hezkuntzako hirugarren mailan.

Lehen ikasle IE1 da. Bederatzi urteko neska da (LH¹¹ 3. maila), egun Elizondon bizi bada ere jatorriz Marokokoa dena. Lau urte zituelarik etorri zen Baztanera eta geroztik D eredu eskolaturik dago. Bere familian mintzatzen den hizkuntza arabiera da, (IE1ren ama hizkuntza). Hala eta guztiz ere, bere anaiak gaztelaraz ongi hitz egiten daki. Bera gurasoei dagokienez, amak frantsesa nahiko ongi menperatzen du eta gaztelaraz hitz egiten ikasten hasi da. Aitak berriz, frantsesa gutxi daki eta gaztelararen ikasketan ere hasikinetan dago. IE1ek etxean arabieraz hitz egiteaz gain, eskolan ere Marokokoak diren ikasleekin hizkuntza honetan hitz egiten du, hala nola IE2-rekin. IE1eri euskaraz hitz egitea kostatu egiten zaio, eta idazterako orduan ere arazoak izan ohi dituela baieztatu du bere egungo irakasleak. Akitzeko, azpimarratu behar da, euskaraz eskolatua izateaz gainera, Topagune Elkartean parte hartzen duela, eta beraz, astero aisialdian euskarazko jarduerak burutzen dituela.

Bigarren ikaslea IE2 da. Bederatzi urte ditu (LH 3.maila) jatorriz Marokokoa den neska honek. Hiru urterekin etorri zen Elizondora bizitzera eta beraz, txiki txikitatik euskaraz ikasten ari da. Bere familian arabieraz hitz egiten dute, baina hala ere bere amak ongi menperatzen du frantsesa eta baita gaztelera ere. Etxeko hizkuntza nagusia arabiera bada ere, IE2k berak errandakoaren arabera, bere ahizpa txikiarekin euskaraz hitz egiten du, honek errazago ikasteko helburuarekin. Lehen erran bezala, gainerako

¹⁰ Bi ikasleen gurasoekin hitz ordu bat lortzen saiatu arren, ezinezkoa izan da. Hori horrela, irakaslearekin hitz egin ondoren ikasleekin beraiekin mintzatzeko aukera izan genuen, eta lorturiko informazio guztia beraien ahotik jasotakoa da.

¹¹ LH laburdurak, lehen hezkuntza adierazten du.

ikaskideekin euskaraz hitz egin arren, IE1ekin hitz egiterakoan maiz arabierara jo ohi du. Akitzeko, IE2k ere, Topagune Elkartean parte hartzen du, aisialdian euskara erabiliaz.

3.5 **Ikasleen ekoizpenen bilketa**

Atal honetan, ikerketarako erabilitako idazlanak jasotzeko mantenduriko prozedura izango da mintzagai, emandako pausuak banan bana azalduaz.

Hasteko, idazlanak jaso aitzinetik, IE1 eta IE2ren irakaslearekin hitzordu bat finkatu genuen. Honek errandakoaren arabera, astean behin idazlan bat jasotzen zien ikasleei, genero zein mota desberdinean ondurikoa: batzuetan berak azalpen bat eman ondoren horren inguruko azalpen testu bat eskatzen zien ikasleei, bertze batzuetan ipuin bat osatzeko kaxa magikoa erabiliaz, etab. Hori horrela, interesgarria iruditu zitzaigun ikerketa hau ere ikasleen ohiko jarduera horietatik gertu kokatzea, horrela errealitatea ahalik eta hobekien islatzeko asmoarekin. Beraz, astean behin egiten duten idazlanetako bat ikerketa honetarako jasotzea hitzartu genuen irakaslearekin.

Idazlanak jasotzeko erabilitako metodologia, kaxa magikoarena izan da. Idazlanak horrela egiterakoan, “ kaxa magikoa” deituriko batetik hamar hitz atera eta horietatik ahal bezain hitz gehien erabiliaz istorio bat osatu behar dute ikasleek¹². Hauek izan ziren ikerketa honetarako idazlana burutzeko ateratako hitzak: katua, liztorra, Eibar, hondartza, Australia, estutxea, zuhaitza, ordenagailua, kotxea eta etxea.

Ikasleei eskatu zitzaizen kontakizun ahalik eta koherenteena osatzeko hitz hauekin. Honetaz gain, ipuina osatzen ari zirenean, beharrezko argibideak eman zitzaizkien. Haien artean bat nabarmentzarren, izenburua zein garrantzitsua den gogorarazi zien irakasleak behin eta berriz ikasleei, eta hau zuzenean islatuko da ekoizpenetan.

Kaxa magikoaren bidea ikasleek eguneroko eskola egunetan egiten zutenetik gertu egiteko hartu bazen ere, aitzinago sakon landuko den gisara eta idazlanetan behin eta berriz errepikatzen diren akatsek erakutsi bezala, erabilitako kontsignaren ondorioak garbi agertuko dira osaturiko idazlanetan.

¹² Irakasleak zehaztu zigunez, ikasturtean zehar ipuinak nola osatu landu dute klasean.

Behin ikasle guztien idazlanak bildu ondoren, IE1 eta IE2ren idazlanez gain, guraso euskaldunak dituzten sei ikasleren idazlanak eta guraso erdaldunak dituzten bertze seirenak aztertu dira. Beraz hiru multzo desberdinetan sailkatu dira ikasleak bakoitzaren ama hizkuntzaren arabera¹³: lehenik, ama hizkuntza euskara dutenak, bigarrenik gaztelera dutenak eta azkenik, arabiera dutenak. Bakoitza bere aldetik zuzendu eta aztertu ondoren, elkarren arteko parekotasun eta desberdintasunak bilatu nahi izan dira. Bide honen bitartez, IE1 eta IE2ren lanek bertan jaiotako ikasleen lanekin antzekotasunak eta aldeak dituzten edo ez ikusi nahi izan da.

4. IKASLEEN IPUINEN AZTERKETA

Atal honetan ikasleen ipuinen azterketa burutuko da, alderdi desberdin zenbait kontutan harturik. Horretarako, Nafarroako lehen hezkuntzako curriculum¹⁴ baliatu da, “Euskara eta literatura. D eredu” atala hartu delarik. Bertan, lehen hezkuntzako bigarren zikloan ikasleak eskuratu beharreko gaitasunak eta barneratu beharreko edukiak azaltzen dira, eta erran bezala, hauek kontuan hartu dira ikerketan eskatu beharreko maila epaitzerako orduan. Ikasleei esleituriko lana aintzat hartuta, batez ere idazteko gaitasunean eta hizkuntzaren ezagueran zentratu da analisisa. Curriculumaren arabera (Nafarroako Gobernua, 2007) ikasleek testu idatziak zaintzeko eta behar bezala aurkezteko interesa erakutsi behar dute, ortografia zaindu, komunikazio testuinguruaren osagaiak ezagutu behar dituzte, testuari kohesioa emateko erabilera grafikoko osagaiak ezagutu behar dituzte, etab. Hala eta guztiz ere, hauek sakonago agertuko dira hurrengo ataletan.

Honetaz gain, Dolz eta besteren (2013) *Produccion escrita y dificultades de aprendizaje* lana ere euskarri arras garrantzitsua izan da, batez ere laugarren atala (“El procedimiento de análisis”) eta seigarrena (“Los textos narrativos”) erabili direlarik. Aipaturiko lehenbiziko atalean ikasleek ekoizturiko testuak ebaluatzeko eta akatsak identifikatzeko irizpide garrantzitsu zenbait ematen dira. Honen arabera, arras garrantzitsua da garbi edukitzea ikaskuntzaren helburuak zein diren, honek zuzenean baldintzatuko baitu ikasleek ikasketa prozesuaren bitartez, lortzea nahi dugun maila.

¹³ Guraso bat euskalduna eta bertzea erdalduna duten haurren idazlanak ez dira aztertu ikerketa honetarako.

¹⁴ Nafarroako Lehen Hezkuntzako curriculum:

<http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/curriprimaria2eusk.pdf>

Honetaz aparte, ikasleek egindako akatsak ebaluazio giden bitartez identifikatzea proposatzen dute autore hauek eta hauetatik abiatuta testuaren analisisira heltzea. Analisisian, atal desberdinen azterketa proposatzen dute Dolz eta bestek (2013): testuaren errepresentazio orokorra, eduki tematikoak, komunikazio egoerarekiko egokitzapena, planifikazioa eta testualizazioa, hain zuzen ere. Narrazio testuei zuzenduriko seigarren kapituluaren berriz, hauek osatzeko puntu garrantzitsu ugari emateaz gain, ipuinak eta bizi esperientzien inguruan egindako kontakizunak zuzentzeko modelo didaktikoa eskaintzen da. Erran beharrik ez dago, ikerketa honetan baliaturiko generoa narratiboa izanik, ezin hobeki uztartzen dela Dolz eta besteren (2013) lana esku tartean dugun honekin. Hori horrela, batez ere honetan zentratuko dira testuaren azterketarako erabilitako azterketa-irizpideak.

Azterketan murgildu aitzinetik, ikasleak izendatzeko laburduren inguruan pare bat zertzelada ematea komeni da. Hurrengo atalean, IE1 eta IE2 izendapenak erabiltzen jarraitzeaz gain, gainerako ikasleak ere laburduren bidez azalduko dira. Bi guraso euskaldunak dituzten ikasleak izendatzeko, alfabetoko letrak minuskulak baliatuko dira: a, b, c, d, e eta f. Bi gurasoak erdaldunak dituztenak izendatzeko berriz, letra berdinak baina maiuskulaz erabiliko dira: A, B, C, D, E eta F.

4.1 Ipuinen luzera

Ikasleek ekoiztutako testuen tamaina izan da kontutan hartu den lehen ezaugarria. Hau ekoizpenen lehen argazki orokor bat ateratzeko asmoarekin burutu da, alegia, erreferentzia orokor gisa baliatuz. Beti ere, argi edukiaz, luzera ez dela testu hoberenaren baliokidea. Horretarako hitzak kontatuz idazlanen luzera neurtu da, ama hizkuntzaren arabera eta hiru neurri desberdinetan sailkaturik ipuinak: laburrak (0-55 hitz bitarte dituztenak), ertainak (56-110 hitz bitartekoak) eta luzeak (110 hitzetik gora dituztenak).

4. taula: Ipuinen luzera

	H1 arabiera	H1 euskara	H1 gaztelera
Laburrak	IE2 (37 hitz), IE1 (46 hitz)	c (54 hitz)	
Ertainak		d (56 hitz), b (69 hitz)	E (67 hitz), A (74 hitz), B (80 hitz), D (85 hitz), C (90 hitz), F (96 hitz).
Luzeak		a (124 hitz), e (133 hitz), f (145 hitz)	

Datuek garbi erakusten dute ikasleen artean desberdintasun handiak egon direla alor honetan. Ikusi daitekeenez, bi ikasle etorkinen testuak izan dira denetan laburrenak. Hitz kopuru gutxien izateaz gain, idazlan zenbaitekiko aldea nahiko nabarmena da, idazlan luzeena, laburrena baino ia lau aldiz handiagoa baita.

Honetaz gain, idazlan ertainetan ama hizkuntza euskara zein gaztelania duten ikasleak ikusi baitaitezke ere, hiru idazlan luzeak guraso euskaldunen seme-alabek ondurikoak direla azpimarratu behar da. Edozein modutan ere, ezin dugu gainetik pasa hirugarren idazlan laburrena ere etxetik euskalduna den ikasle batek egindakoa dela.

4.2 Planifikazioa

Atal honetan Dolz eta bere lankideen (2013) lanean oinarriturik, ipuinak osatzeko aintzat hartu ohi diren planifikazioaren atalak izango dira aztergai.

a) Izenburua

Puntu honi dagokionez, emaitzak arras positiboak dira, ikasle guztiek jarri baitiote izenburua beraien ipuinari. Irakasleak ipuinak egiten ari zirenean gogorarazi zien izenburua beharrezkoa zela, eta ziurrenik hori da guztiek erabili izanaren faktore garrantzitsuenetariko bat.

b) Ipuinen egitura narratiboa

Atal honetan, ikasleek ipuinak planifikatzeko duten trebetasuna izango da aztergaia, ipuinetako egitura narratiboa harturik ardatz. Dolz eta besteren (2013)

arabera, ipuinen egitura honelakoa da: hasierako egoera, korapiloa, ekintzak, orekaldia eta amaierako egoera. Hala eta guztiz ere, Manterola eta Lardizabalek (2009: 1527) ipuinen edukiak hasiera, korapiloa eta bukaera bezala ere sailkatu daitezkeela gogorarazten dute. Ikerketa honetan, azken sailkapen honetaz baliatuko gara, irizpide gisa oinarritzkoagoa izango delakoan.

5. taula: Egitura narratiboa

	Hasierako egoera	Bukaera	Korapiloa	Oharrak
IE1	Ez	Bai	Ez	
IE2	Bai	Bai	Bai	Antzeman daiteke
a	Bai	Bai	Bai	Ekintzan lau zati identifikatu daitezke
b	Bai	Bai	Ez	
c	Bai	Bai?	Ez	
d	Bai	Bai?	Bai	Korapiloa nahasi samarra da
e	Bai	Bai	Bai?	Amaiera ez da ongi antzematen
f	Bai	Bai	Bai?	Amaitu gabea, baliteke astirik eman ez izana
A	Bai	Bai	Bai	
B	Bai	Bai	Bai	
C	Bai	Bai	Bai	
D	Bai	Bai	Bai	
E	Bai	Bai	Bai	
F	Bai	Bai	Bai	

Zenbait testutan edukien planifikazioa argiago antzeman badaiteke ere, orokorrean ikasle gehienen lanetan mantentzen direla oinarri-oinarrizko planifikazio trebetasunak baieztatu daiteke.

Idazlan gehienetan sarrera eta amaiera dira hobekien nabarmentzen diren atalak. Hona hemen testuen hasiera eta amaiera adibide pare bat:

(1) IE2: Bazen behin etxe bat eta bazuten katu bat (...) / Ama asertu zen kastigatu zion. Amaiera.

(2) d ikaslea: Egun batean zegoen Eibar futbol taldea (...) / Irabazi zuten liga eta Australiara joan ziren.

Hala eta guztiz ere bada kontrako egoeraren adierazgarririk ere, IE1en testua. Izan ere, testua nahasi samar hasten da, ondotik ikusiko dugun gisara, zuzenean katuak eta liztorren ekintzak kontatuz. Amaiera dagokionez ere, ez da bertzeetan bezain borobila:

(3) IE1: Austrak katuak eta listora eta gero katuak joan dira zuaitzera. / Eibar eta gero joan dira ordenagailura listorak eta katuak.

Korapiloari dagokionez konplexutasun desberdintasun handia ikus daiteke testu batzuetatik bertzeetara. Zenbait testutan ekintza desberdinen garapena identifikatu daiteke atal honetan, a testuan erraterako. Bertze batzuetan berriz haria sinplea eta laburra da. Hona hemen hiru adibide. Lehenbiziko bietan ekintzen zein sintaxi osagaien konplexutasuna agerian gelditzen da, hirugarrenean aldiz, ez da horrelakorik antzematen:

(4) a ikaslea: Egun batean eibarreko jokalaria bat etorri zen. Eta baloi batekin katuak jo zituen. / lenengo partidoa irabazten duela eta orduen festa bat egin zuten eta denetaik, oso dibertigarria izan zen.

(5) b ikaslea: *Umea estutxea atera zuen eta golak markatzen ari zela 3-1 eibarrek irabazi zuen.

(6) IE2: Egun batean Probatu zuen eta funzionatzen du eta bere etxean 100 katu zeuden.

Atal honekin akitu dezagun interesgarria izan daitekeen bertze kontu bat azalduaz. Izan ere, kaxa magikotik ateratako ahalik eta hitz gehien erabili behar izateak, ikasle zenbait beren ekoizpenetan hitzak derrigorturik txertatzera behartu ditu. Honek maiz, testuari koherentzia kendu dio. Adibidez:

(7) a testua: (...) Egun batean partido bat egin zuten, eta eibar Vs australia eta *eibar irabazi zuen 5-2. **Eta kotxe onak eta estutxe aunditz.** Eibar arras (...)

(7). adibidean garbi ikusten da letra beltzez markaturiko atala inongo zentzu gabe tartekatu dela ikaslearen kontakizunean, kaxa magikoak hartara bideraturik nonbait.

4.3 Testualizazio mekanismoak

Dolz eta bere lankideen (2013) sailkapena jarraiki, atal honetan hiru alderdi desberdin landuko dira: hasiera eta amaierako formula kanonikoen erabilera, denbora antolatzaileen erabilera eta aditz denboren aldaketa.

a) Formula kanonikoen erabilera

Hasieran batez ere arras nabaria da formula kanonikoen erabilera, ikasle guztiek IE1ek izan ezin baitarabilte. Ikasle batek “behin batean bazen” erabili du, bik “behin batean” eta bertze bik “egun batean”. Hauetaz gain, zazpi ikaslek “bazen behin” erabili dute. Hala eta guztiz ere, hauetariko bik ez dute ongi baliatu.

(8) a ikaslea: *Bazen bein liztor baten etxean katuak bizi ziren.

(9) A ikaslea: *Bazen behin Australian zuhaitz batean liztor handi-handi bat zegoen.

Bi adibide hauetan ikusi daitekeenez, badirudi ikasleek ipuinetan formula hauek erabili behar direla badakitela, baina ez dakitela ziur ongi nola erabiltzen diren. Beraz, automatikoki txertatu dituzte beraien testuetan, erabilera okerra izan arren.

Amaierako formulei dagokienez, ez du inork euskal ipuingintzan hain erro turrik dauden “eta hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan” edo antzekorik erabili. Gehiengoak ez du akaberan ezer berezirik atxiki. Lau izan da dira ipuina akitu dutenean zerbait gaineratu dutenak: bi ikaslek (haien artean IE2k) “amaiera” jarri dute, eta bertze bik “fin”.

b) Denbora antolatzaileak

Orokorrean guztiek erabili dute denbora antolatzaileraren bat, baina zenbaiten kasuan erabilera hutsetik haratago, beren lana alor honetan aberasteko nahia ere nabaritzen da. Adibideei helduz, IE1ek erraterako, lau bider erabiltzen du “eta gero” antolatzailea, eta IE2k berriz, bi darabiltza, “bazen behin” eta “egun batean”. Gainerako bertze bortz ikasleren testuek ildo honetatik jotzen dute baina badaude bertze zazpi idazlan, zeinetan denbora antolatzaile kopuru eta barietatea handi samarra den aitzinekoekin alderatuta. Hona hemen erabilitako antolatzaile kopurua kontuan harturik (bakarra, bi edo hiru baino gehiago), taula batean adierazita errandakoa:

6. taula: Denbora antolatzaileak

	H1 arabiera	H1 euskara	H1 gaztelera
Antolatzaile bakarra	IE1 (4 "eta gero")	c ("Behin batean")	
Bi antolatzaile	IE2 ("Bazen behin", "egun batean")	b ("behin batean bazen", "ta gero"), d ("Egun batean", "eta gero")	B ("bazen behin", "egun batean"), D ("behin batean", "gero")
Hiru antolatzaile edo gehiago		a, e, f	A, C, E, F

Azken taldean sartzen diren ikasleei dagokionez, a eta e ikasleak dira antolatzaile gehien erabiltzen dituztenak.

(10) a ikaslea: Bazen behin/ egun batean (bi aldiz)/ orduen/ azkenean/ larunbatean

(11) e ikaslea: Egun batean/ ondoren (bi aldiz)/ goizean/ gero (bortz aldiz).

Testuen konplexutasun eta luzerak zuzenean eragin du testuetako denbora antolatzaile kopuruan. Hori horrela, ez dirudi kasualitate hutsa, antolatzaile gehien dituzten testuak izatea luzeenen artean sailkaturikoak, eta antolatzaile bakarra duten bi idazlanak berriz, laburren taldekoak.

c) Aditz denbora

Atala honetan hiru azpimultzo desberdin bereizi daitezke, ikasleen testuak oinarri harturik:

7. taula: Aditzen debora

Oraina eta iragana. Erabilera okerra	IE1, IE2, a, d
Oraina eta iragana. Erabilera zuzena	f, B
Dena iraganean	b, c, e, A, C, D, E, F

Lehenbiziko azpiatalean, iraganaldiko adizkiak eta orainaldikoak nahasirik darabiltzaten ikasleak ageri dira. Hauek ez dute aditz denboren aldaketa zuzena egiten. Hona hemen gure ikerketako ardatz diren ikasleen adibideak. Lehenak, istorioa orainaldian kontatu arren, iraganeko adizki bat txertatzen du bere ekoizpenean. Bigarrenak berriz, kontrako bidea hartzen du, hau da, dena iraganean kontatu arren une konkretu batean orainaldira salto egiten du.

(12) IE1: (...) Katuak **juan dira** zuatzera. Eta listorrak **juan dira** etxe batera (lau aldiz darabil “Juan dira”) eta gero *katua **artu zuen** estutxe bat ondartzan (...) eta gero **reunitu dira** liztorrak eta katuak.

(13) IE2: “(...) eta *mutikoa **inbentatu zuen** El raio 3000. Egun batean **probatu zuen** eta **funzionatzen du** eta bere etxean 100 katu **zeuden**(...).”

Bigarren azpiatalak berriz, ipuin guztia iraganean kontatu duten ikasleak biltzen ditu. Hauek dira gehiengoak, hamalautik zortzik bide honetatik jotzen baitute. Hauetariko gehiengoak ez daukate elkarrizketa zatirik beraien ekoizpenean eta hori horrela, ez dute orainaldia erabiltzeko beharrik. Hala ere, A eta D ikasleek elkarrizketa zatitxo bat badaukate, baina honetan aditza laguntzailea isilik mantendu dute. Hona hemen adibide bat:

(14) A ikaslea: (...) *ama deitu zion eta erran zuen: Etorri etxera oraintxe bertan! Eta erantzun zuen: vale.

Sailkapenarekin akitzeko, azken azpiatala, idazlanean iragana eta orainaldia modu egokian txandakatuz darabilten ikasleei dagokie. Hauek narrazioa iraganean kontatzen dute baina norbaitek hitz egiten duenean, orainaldiaz baliatzen dira. Bi dira horrela darabiltenak, hona hemen adibide bat:

(15) f ikaslea: (...) eta erran **zuen**: zer da hori? A, ordenagailu bat **da!**

4.4 Alderdi gramatikalak

a) Aditza eta osagarriaren arteko numero komunztadura

Atal honekin, ikasleek aditza eta osagarriaren arteko numero komunztadura mantentzen duten edo ez aztertuko da, horretarako bi azpiataletan banatuaz ikasleek harturiko bideak.

8. taula: Aditzarekin komunztadura

Komunztadura mantentzen dutenak	IE1, IE2, b, d, f, A, B, C
Zenbaitetan komunztadura mantendu ez	a, c, e, D, E, F

Kasu honetan IE1 eta IE2k aditzaren erabilera zuzena egiten dutela ikusi dezakegu. Baina hau ez da ekoizpen guztiek partekatzen duten ezaugarria, beraien zenbait ikaskidek ez baitute komunztadura behar bezala mantentzen kasu guztietan. Adibidez:

(16) e ikaslea: *hartu **zuten estutxeak** / *ikus **zuten haunitz katuak**

Hala ere, kontutan hartu behar da komunztadura gaizki mantendu duten ikasleen lanak direla bildurikoen artean luzeenetarikoak. Hori horrela, akatsak egiteko aukera eta probabilitatea ere handiagoa da. Datu konkretuetara sarturik, IE1ek errate baterako, sei aditz darabiltza bere idazlan guztian eta IE2k zazpi. Komunztadura birritan gaizki mantendu duen e ikasleak berriz, hogeni aditz erabiltzen ditu bere ekoizpenean.

Atala honekin akitzeko komunztadura ongi mantentzen dutenen azpisailean zenbait erabilera zalantzarri ere badaudela azpimarratu behar da. Izan ere, anitzetan aditzak oker erabili dituzte ikasleek eta honek ilundu egin du azpisail batean edo bertzean sartzeko erabilitako irizpidea. Adibide bat ematearren:

(17) d ikaslea: (...) Keira ezkondu da Eibarreko jokalaria batekin eta muxu eman ***ziren**.

Kasu hauetan sailkapena erraztearren, oker erabilitako aditzak ez dira aintzat hartu eta idazlanetako gainerako aditzetan ongi mantendu den edo ez komunztadura hartu da kontutan.

b) Ergatibo kasua

Atal honetan, perpauseko gramatikako esparruarekin jarraituz, ergatibo kasuaren ekoizpena izango da aztergaia. Ergatiboaren behaketan bi atal desberdin bereizi dira ikasleen lanetan oinarriturik: ergatiboaren ekoizpen zuzena eta ergatiboaren ekoizpen falta (beharrezkoa denean ez ekoiztea hain zuzen ere).

9. taulan biltzen dira ikasleen emaitzak, lau sailetan banaturik (IE1enak, IE2renak, ama hizkuntza euskara dutenenak eta ama hizkuntza gaztelera dutenenak):


9. taula: Ergatiboaren erabilera

	ERG¹⁵	Ongi	Falta
IE1	1	0	1
IE2	1	0	1
Ama hizkuntza euskara	21	4	17
Ama hizkuntza gaztelera	13	1	12
Portzentaietan			
IE1 (%)	%100,00	%0,00	%100,00
IE2 (%)	%100,00	%0,00	%100,00
Ama hizkuntza euskara (%)	%100,00	%19,05	%80,95
Ama hizkuntza gaztelera (%)	%100,00	%7,69	92,31

Taulako datuak argiago ikusteko xedearekin, hona hemen datu hauek grafiko baten bitartez adierazita:

¹⁵ ERG laburdurak, ergatiboa adierazten du.

3. grafikoa: Ergatiboaren erabilera



Taulan zein grafikoan biltzen diren erabileren emaitzetan garbi ikusten da orokorrean ikasleek ez dutela ongi erabiltzen ergatiboa. Guztira erabilitako edo erabili beharreko hogeita hamasei ergatiboetatik, bortz bakarrik izan dira ongi erabili dutenak (lau ama hizkuntza euskara duten ikasleen taldekoak eta bat ama hizkuntza gazteleraduna). Adibidez:

(18) a ikaslea: Eibarrek lau.

(19) b ikaslea: 3-1 eibarrek irabazi zuen.

Hala ere bortz ergatibo hauetatik, hiru aipatu behar dira. Hauetan ergatibo marka zuzen erabili arren, ikasleek ez baitute numeroa egoki erabili. Hona hemen bi adibide:

(20) d ikaslea: * Estutxea zuten eibarrekoak / katuak irabazi zuten

Hau ikusirik emaitzen gehiengoa arras garbi lerratzen da ergatiboa erabili behar zenean erabili ez dutenen taldera. Ikasle guztien ekoizpenak kontutan hartuta, ergatibo guztien %86'1 talde honetakoa da. Hona hemen zenbait adibide:

(21) IE1: * Katua artu zuen estutxea.

(22) f ikaslea: * Norbait estutxea katu gainera bota zuen.

(23) E ikaslea: * Bi numeroa txutatu zuen.

Ikusirikoa ikusirik azpimarragarria da ikasleen artean ergatiboa zuzen ez erabiltzeko joera zein zabaldua dagoen. Gainera, ez da sailkaturiko hiru taldeetako bati soilik esleitu dakiokeen ezaugarria. Izan ere IE1 eta IE2k ez badute erabiltzen ere, ama hizkuntza euskara duten ikasleek zein ama hizkuntza gaztelera dutenek ere kasu gehienetan ez dute erabiltzen. Xehetasunetan gehiago sarturik, ez dagoela ikasle bat ere ergatibo guztiak ongi egin dituenik baieztatu daiteke (salbuespen bakarria ergatiborik erabili ez duen F ikaslea delarik).

4.5 **Baztango euskalkiko lexikoa eta gaztelerazko lexikoa**

Ikasleen ipuinen azterketarekin akitzeko, bilduriko ekoizpenetan Baztango euskalkiko lexikoaren presentzia eta gaztelerako hiztegiarekiko lotura aztertuko da.

IE1en testuan ez dago Baztango euskalkiarekiko lotura erakusten duen elementurik, bai ordea gaztelerako lexikotik harturiko aditz bat: “reunitu dira”. IE2ren idazlanean ordea, gazteleraren eragina nabariagoa dela baieztatu daiteke, hiru baitira honen erakusgarri diren elementuak: “inbentatu”, “el raio 3000”, eta “kastigatu”. Badaude halaber, bertako euskalkiari atxikita ageri diren bi hitz: “asertu” (euskara batuan “haserratu”) eta “mutikoa” darabiltza.

Gainerako idazlanetan, zenbaitetan gutxiago eta bertze zenbaitetan gehiago, Baztango euskalkiaren eragina nabarmen antzeman daitekeela erran daiteke. Honen adibideak testu ugarian aurki badaitezke ere, hona hemen eragin gehien antzematen den testuetariko bat:

(24) e ikaslea: goratu / gan / ttipi-ttapa / maestra / astiko / patu

Gaztelerazko lexikoaren eraginari dagokionez, hitz solte zenbait kendurik, ama hizkuntza euskara duten ikasleetan presentzia urria duela nahiko garbia da. Gaztelera ama hizkuntza dutenen kasuan berriz, gehiago nabari da beraien etxeko hizkuntzaren eragina. Ondorengo zerrendan emandako hitzak honen adierazgarri dira:

(25) vale / fuera / eliminatu / Eibar kontra Australia (sintaxi egituran ere nabari da gazteleraren eragin kasu honetan) / suspenditu / osea / partido de futbol / txutatu

Esan liteke, beraz, IE1 eta IE2ren kasuan lerratze garbi bat baieztatu ezin badaiteke ere, gainerako bi azpi-multzoetan joera kontrajarriak nabarmen ageri direla:

ama hizkuntza euskara duten ikasleek maiz, bertako euskalkira jotzen dute. Ama hizkuntza gaztelera dutenek berriz, etxeko hizkuntza hartzen dute sostengu.

5. EMAITZEN AZTERKETEN SINTESIA

Txikitatik D ereduaren eskolaturiko bi ikasle etorkinek euskaraz daukaten maila aztertzea izan da lan honen abiapuntua, eta egin behar hori asetze aldera, ama hizkuntza euskara zein gaztelera duten ikaskideen lanak ere kontrasterako erreferentzia garrantzitsu bihurtu dira. Hasieratik ezarritako helburu hori betetze asmoz, Dolz eta bere lankideen (2013) lana oinarri harturik ikasleen ekoizpenak xeheki landu dira. Emaitzak banan bana plazaratu ondoren aitzineko atalean, puntu garrantzitsuenak laburbilduko dira atal honetan, batez ere IE1 eta IE2ren idazlanen datuetan oinarrituz.

Emaizen atala hasi dezagun erranez, aztertu ditugun ikasle etorkinek euskaraz idazteko zenbait trebetasun eskuratu badituzte ere, oraindik, beharbada, zenbait ataletan beraien klasekideak baina koska bat gibelago egon daitezkeela. Gainerako ikasle ugari zenbait ataletan huts egin badute ere, bertze ugaritan emaitza onak eskuratu dituzte. Aztergai ditugun ikasleek berriz atal ugaritan erakutsi dituzte gabeziak. Hona hemen aurreko sailkapena aintzat harturik erakutsi dituzten hutsune eta trebetasunak zerrendaturik eta azalpen zenbaitekin osaturik:

- Bi ikasle etorkinenak izan dira idazlanik laburrenak. Hala ere, orokorpenetan erori aitzinetik, gogoan eduki behar dugu, bi ikasle etorkinekin batera hirugarren testu laburrena idatzi duen ikaslea, ama hizkuntza euskara duen ikasle bat izan dela.

- Testuaren planifikazioari dagokionez, ipuinen egitura narratiboa osatzerakoan hutsune handienak erakutsi dituen ekoizpena IE1rena izan da: hasiera ez bukaera ez baitira arras garbi ageri. Hala ere, aintzat hartzekoa da etxetik euskaldun zein erdaldun diren ikasleengan ere topatu direla egitura narratibo osatugabea duten idazlanak. Honi jarraiki, lotura moduko bat ezarri liteke testuaren luzeraren eta egitura narratiboaren artean. Testua geroz eta luzeagoa izan, orduan eta elementu gehiagok ahalbidetuko dute egitura narratiboa ongi bereiztea. Hori horrela, ez du hain arraroa ematen alderdi honetan justuen dabilzan hiru lanetako bi, arestian ekoizpen laburren multzoan sailkatutakoak izatea. Hala ere, azpimarratu behar da IE2ren lana laburra izan arren, bertan ipuinetan ohikoak diren hiru atalak identifikatu daitezkeela. Izan ere,

bilduriko ipuin guztiak ez dira berdinak aztergai dugun atal honi dagokionez, eta ipuinen atal nagusiak ikasle gehienetan lanetan ekoitzi badira ere, horrek ez du erran nahi ezinbertzean lan guztiek konplexutasun maila bera erakusten dutenik atal desberdinen egituraketan.

- IE1ek ez du ipuinetan ohikoak diren hasiera ez amaiera kanonikorik erabili (gainerako guztiek hasieran gutxienez erabili dute).

- Denbora antolatzaileen erabilerari dagokionez, lanen arteko konplexutasun desberdintasun nabaria azpimarratu daiteke. Izan ere, gutxiago edo gehiago ikasle guztiek erabiltzen dute antolatzailearen bat, baina zenbaiten idazlanetan hauen erabilera naroa da. Ikasle etorkinen kasuan, ez bat ez bertzek ez dute denbora antolatzaile kantitate handia erabili: IE1ek “eta gero” antolatzailea erabili du lau bider. IE2k berriz, bi denbora antolatzaile baliatu ditu.

- Aditz denboren erabilerari dagokionez, gehiengoak ipuin guztia iraganean kontatzea hobetsi du. Dena dela, ez da hau izan bide bakarra: bi ikaslek iragana eta oraina baliatu dituzte, aditzen denboraren bitartez ekintzak denbora plano desberdinetan (kontaktaren plano eta elkarrizketarena) kokatzeko. Txanponaren bertze aldean berriz, IE1, IE2, a eta d ikasleen adibideak daude, iragana eta oraina modu okerrean erabili dituztenak.

- Aditza eta osagarriaren komuntadurari dagokionez, IE1 eta IE2 erabilera zuzena egin duten zortzi ikasleen artean kokatzen dira.

- Ergatibo kasuaren azterketa emaitzetan joera bateratuena erakutsi duena aztergaia izan da, datuek argi erakusten baitute joera nagusia ergatiboa gaizki erabiltzearen aldera lerratu dela. Izan ere, testuetan agertu beharreko ergatibo guztien artean, %86'1a erabili behar zenean erabili ez dutenen multzoan sailkatzen da. IE1 eta IE2 ere, multzo honetan sailkatzen dira. Hortaz, klasea bere osotasunean hartuz, ergatiboaren erabilera okerra arras zabaldurik dagoela baieztatu daiteke, ikasleen ama hizkuntza dena delarik ere. Edozein modutan ere, idazlan guztien badago partekatzen den ezaugarri bat: inork ez du behar ez denean ergatiboa erabili.

- Eskuraturiko azken datuak, Baztango euskalkiaren eta gazteleraren eraginaren ingurukoak izan dira. Aipatu bezala, IE1 eta IE2ren lanetan ez dago euskalkiaren edota gazteleraren aldeko lerratze garbirik. Gainerako ikasleen artean

ordea, ez da berdin gertatzen: ikasleek beren ama hizkuntza hartu ohi dute sostengu. Azpimarragarria da, bertan jaiotako ikasleek beren lehen hizkuntzara jo badute ere idazlanak osatzeko, IE1 eta IE2k ez dutela arabieraren eraginik islatu ipuinetan. Baliteke, hau arabiera eskola eremuan ez erabiltzearen ondorio zuzena izatea.

Laburbilduz erran genezake, idatzizko ekoizpenak osatzeko garaian ikasle etorkinak euren ikaskide zenbaitengandik gertu egon arren, balitekeela euskararekiko lehen hartu-emanak IE2k hiru urterekin eta IE1ek laurekin izan izanak eragina edukitzea beraiengan. Honetaz gain, gogoratu behar dugu hasieran ikusi dugunaren arabera, Elizondo ez dela erabat herri euskalduna, eta honek, seguruenik, eragina izango du IE1 eta IE2ren euskara ikastearen prozesuan. Manterola eta Lardizabalen (2009: 1533) erranak geureganatuz, berebiziko garrantzia baitu etorkinak etxetik zein eskolatik kanpo ere, euskarazko testuinguruan murgildurik egoteak. Euskarazko eskolaztearekin batera, baldintza honek ahalbidetuko du neurri handi batean atzerritarrek euskara egoki ikastea.

6. ONDORIO OROKORRAK ETA HURRENGO LANETARAKO PROPOSAMENAK

Esku tartean dugun lana akitze aldera, ondorio orokor zenbait plazaratuko dira, batez ere ikerketa burutzeko emandako pausuetan oinarrituko direnak.

Hasteko, ikasleen testuen ekoizpena bideratzeko zeregina eta kontsigna izango dira mintzagaia. Idazlanak kaxa magikoa baliatuz lortzeko bidea hobetsi zen, horrela ikasleek egunerokoan irakaslearekin egiten zituzten ariketetatik gertu kokatzeko ikerlana. Hau da, ikerlanaren bitartez ez zen klaseko jardueretatik urrundu nahi, lorturiko datuak eskolako eguneroko dinamikari ahalik eta gehien lotuak izatea bilatzen baitzen lanaren bitartez. Baina kaxa magikoak testuen aniztasun handia ekarri du berarekin, eta honekin batera baita alde handia ere, ekoizpen batzuetatik bertzeetara. Gainera, planifikazioaren atalean erran bezala, ikasleek kaxan ateratako hitzak erabiltzeko beharra sentitu zuten nonbait (garbi erran bazitzaie ere ahal zituztenak erabiltzeko, ez ezinbertzean denak) eta ondorioz, zenbaitek zentzurik gabe, ordura arte egindakoari koherentzia kenduz atxiki dituzte bertako hitzak. Are gehiago, honekin harremanetan, testuen luzerak ere ikasleei eskatu zaiena islatu dezakeela erran genezake, eta ez agian, ikasleek narrazio ipuinak idazteko daukaten gaitasuna.

Errandakoarekin zuzenean loturik ezinbertzean kontsignaren garrantzia azpimarratu behar da. Kontsigna egoki batek ikaslea lagundu eta eskaturikoa zer den

garbi adierazten du. Hona hemen Dolz eta bere lankideen (2013) erranetan kontsigna on baten inportantzia:

(...) importancia de una consigna precisa y sencilla, es decir, una consigna eficaz, cuyo objetivo de escritura está bien definido y sea comprensible para el alumno. Una consigna que sea consecuente con los aprendizajes del alumno y que sea coherente con el trabajo realizado previamente, de modo que de su producción pueda utilizar lo aprendido en clase.

Ikusirikoa ikusirik, baliteke lana bertze bide batetik zuzendu izan balitz, emaitzak ere desberdinak izatea. Ondorio honetara heldu ondoren, bide honetatik egin nahiko genuke hurrengo lan posibleetarako lehen proposamena. Interesgarria litzateke ikerlan honetan parte hartu duten ikasleei, bertze ipuin bat idazteko eskatzea. Baina oraingo honetan, kontsigna on baten laguntzarekin, eta beharrezko zutarriak zuzenago ezarriaz. Hau egin ondotik, emaitzetan lorturiko gaitasun eta gabeziak, esku tartean dugun lan honetan lorturikoekin parekatzea aberasgarria litzateke. Hau eginez gero, gabezien arrazoia kontsignaren zehaztasun falta edo ikasleen beraien hutsuneak diren baieztatu eta ziurtatu baitaiteke.

Akitzeko, bertze proposamen bat plazaratu nahiko genuke. Hasierako ataletan erran bezala, Baztanen eskola ugari daude, eta bertze zenbait eskoletan ere badaude ikasle atzerritarrak. Ikusi dugunez, Elizondo da Baztango herri handiena eta ez da erabat herri euskalduna. Baina bailarako gainerako herri ugarian euskararen presentzia ia erabatekoa da. Hori horrela, herri txiki hauetako eskoletan dauden atzerritarrekin lan egitea interesgarria litzateke. Ikerketa honetan buruturiko lan berdintsua gainerako herrietan eskolatutako ikasle etorkinekin burutzea aukera polita litzateke. Hartara Elizondoko karriketako euskararen presentziak, IE1 eta IE2rengan zenbateko eragina duen azaleratu daiteke. Gainera, honek, Manterola eta Lardizabalek (2009) Seguran egindako ikerketaren ildotik azaleratutako hipotesia indartzeko edo kontrakoa erakusteko balio lezake.

7. BIBLIOGRAFIA

Aierdi, X., 2008, “Hego Euskal Herriko atzerri imigrazioa”, *Jakin*, 165, 11-30.

Ansa, M.P., 2014, “Inmigrazioa apaldu da, hamalau urteko hazkundearen ondotik”, *Berria*. [Sarean]: <http://www.berria.eus/albisteak/95167/immigrazioa_apaldu_da_hamalau_urteko_hazkundearen_ondotik.htm>. [Konsulta: 2015-06-06]

Dolz, J., Gagnon, R., Mosquera, S., Sánchez, V., 2013, *Producción escrita y dificultades de aprendizaje*, Barcelona: Editorial Grao.

Goikoetxea, G., 2014, “Euskararen eskailerak”, *Berria*. [Sarean]: <http://www.berria.eus/agiriak/ikusi/1346/> >. [Konsulta: 2015-05-27]

Kasares, P., 2015, *Euskararen gaineko zenbait datu Baztanen*, Baztango udala: Euskara Zerbitzua. Eskuizkribua.

Manterola, I., Lardizabal, E., 2009, “Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina”, Bilbo: *Euskera*. 54-3. 1511-153

Manterola, I., Berastegi, N., 2011, *Hizkuntza gutxituen erronkak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.


Nafarroako Gobernuaren argitalpen fondoa, 2007, *Curriculumua. Lehen hezkuntza (bigarren liburukia)*, Nafarroako Gobernu: Hezkuntza Departamentua.


Nafarroako Gobernu, 2011, *Mapa soziolingüístico de Navarra*, Nafarroako Gobernu.
[Sarean]: <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/albisteak/informe_mapa-sociolingüistico_borrador-2.pdf>. [Konsulta: 2014-05-28].

Nafarroako Gobernu, 2014, “Azterlan baten arabera, bertako biztanleen eta etorkinen arteko harremanean bizikidetzatza da nagusi eta gatazka gutxi daude”, Nafarroako Gobernu. [sarean]: <<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/01D74039-A9A1-4F6C-A9DB-CAE3F5F9BD39/286987/diagnosticosituacionpersonasinmigrantesplanconvive.pdf>>. [Konsulta: 2015-05-27]

8. ERANSKINAK: ikasleen ekoizpenak

8.1 IE1





FUTBOL ^{Julon vertiz}
PARTIDOA

Behin batean bazen ume bat
marrazki bat egiten ari zela.
Eta telebista patuzuen.
Historia bere etxean sartu zen.

Bere etxean 2 animale zuden
historiak eta katuak.
Bertze kanal bat patuzuen eta
partidoa ikusizuen.

Eibar Australaren aurka.
Umea estutze a aterazuen
eta golak markatzen ari zela.
3-1 eibarrek irabazizuen.

Bertze kanal bat jarri zuen

eta arbol bat moztu ta
 gero kotxean patren zutela.

8.5 c ikaslea

~~Katua~~ ZETXEA
 KATUZ
 BETETA

Berri batean zabalai katua bete zegoen eta katua
 izena zuen gero eta beste zena id

Eta zuen oso polita eta gero eman zuten berri
 katua eta munita berri zuen gero eta katua eta munita
 a gero zuen munita izena zuen gero eta katua eta munita
 eta beste zuentan munita berri gero eta gero zuen ondare
 izen

EIBAR FUTBOL TALDEA

Egun batean zegoen Eibar futbol taldea
eta zuten zuten Eibarrekoak eta keira sekonda da
Eibarreko jokalaririk batekin eta mulu eman ziren
et futbol partidu bat jolastu ziren eta listor bat zegoen
eta katuak irabazi zuten eta aunditara joan ziren
eta gero etara joan ziren ordinarriak dituzten kotsen.
Irabazi zuten liga eta Australiarra joan ziren

8.7 e ikaslea

2015 Motzakoren 4a Asteartena
EIBA ETA BERE ANAI/A

Egun batean zegoen indiko bat izena zuena Eibar eta bere arai'a zena
eta oinezdaren bere ama Eibarren eta bi araiari aurretiku zuen eskolara.
baitzen Eibar eta bi araiak garatu ziren eta hartu zuten eskutiek eta garu
zireh tipitapa eta bidan ikusi zuten katu bat eta Eibar txoratu
zuen zubaiztarren kontrastea jagatu ziren eskolara eta maestra utzi
zuen zenari zalaztera ardezagailua zena gantzire elera eta ikusi
zuten hamarista Kateak eta zera ikusi zuten astika katu
berdita zera Eibar zena eta oier hamkatsu zute gatia elera
katu heizena pratu zuen izen-a katuari laian eta baguen
Kobura xuria harapja eta garria ondoren Eibar eta bere ama
gantziren katu bat eta txoratu bat eratera eta txakura ikusi
zuen listaraa eta zera katu nahi zuen garu pandoztara

FIN

8.8 fikaslea

Zotzino Matikontem ya abesazirans

AUS AUSTRALIA

Raiico

Bazem Bohim Australiam: lizzor xixi: xixi/bax. Lizzorra bere ezera joan zen.

Bere ezera zuhaitz bat zen. Ezum Bazem Australiam ikusitue Pici ziren. Eza ikatu bat

Lizzoraren ezera joan zen eta Lizzorra zizaban zion Kaxui eta ikatua joan zen.

Lizzorra hari eta zoro Ekharraka hondarrena joan zen. Eza zoro orokoragatu ituzi zuten.

Eza oron zuen?

Zetida hots? A bidemazaki bat da.

Bizimo ezera joan zen. Eza ikusitue haren zuen eta Australiam joan.

Eza le eziera joan zen. Kaxui bertira ezera zen. Bizimo Northair ezuztea Kaxui

joan zen. Eza ikusitue zabalica joan zen. Bizimo bertira ikatu bat

ezera zen eta Lizzorra Belakutu zen. Eza ikusitue haren zuen eta Ekharraka joan zen.

eta Lizzorra Ekharraka: galdu zuen eta orok Belakututa zegoan.


Eza oron zuen:


Ekharraka galdu? maiz zer ezizen ahal du?

Nere ezera joan zen maiz Belakututa ikatu bat da.

Nere ikusitue haren du eta joan.

8.9 A ikaslea





Januar

LISTORRA

Bazen behin ordainagailu bat Zena magro
 a eta ortie atra zen listor bat.
 Gero futbol partida bat jostatu behar ziren
 Eibar kontra Australia eta jolastu behar
 ziren hondartzan orain 5:30 eta jolastu
 behar zirenean listorra etorri zen eta futbolari
 guztiak zirtatu ziei eta suspensioa ziren
 partidea. Gero listorra gun zen bere
 habiara osea bere zubitara eta gero
 futbolaria gun ziren etxera kotxean.
 Gero ikusi zuten katu artalde bat eta
 futbolariak umeari nahiz zuen estutxe
 bat. Eta gero habia listorrena
 kendu zuten eta orai jolastu zuten
 partidea eta eibar irazi zuten.

2015ko martxoaren 4a, asteazkena HUGO

Mutikoa eta ZUHAITZ

Behin batean Etxe batean mutikoa bat kanp bat
 zuen eta ordenagailua zuen zen eta esin zuen
 listan bat gero zuen zen paragona eta
 or zuzen berre entzuna eta berre listona.
 2 listonak zuzen! eta mutikoa zuen
 zen berre etxera gero hondartzara zuen
 zen zuhaitz bat zuzen hondartzan.
 oran zuen: zuhaitz bat hondartzan?
 eta zertan? zuhaitz bat? eta zuen zen
 berre etxera. gero begiratu zuen ordenaga-
 ilua zen zuhaitz zen eta zen zuhaitzen
 eta oran zuen: zuhaitzen? eta berre esin
 zuen.

A I M A R 2015ka. martxoaren 11 a asteaskera
E I B A R E T A L I Z T O R R A

Basen behin Eibar izeneko multzo bat. Estutzea bildu zuen eta
Basen behin Eibar izeneko multzo bat. Estutzea bildu zuen eta

Ekolotik atara zen etxera goren zen bitartean listora

okta egia zien. Handontzean, ordenagailuetan, kontrolian, etate

an, askenik Eibar il zuen eta katu bat for zuen

Zuhaitzean askenik Eibar postula de gutxiak kuztara

izan ziren Postan - Legatza legatza penaliti egia

zuen orduan 2 numerua txutatu zuen eta gal!!!

erregulakizena Postaneko irabazi zuen 7-9,

A M F A I I E R A

2015ko Martxoaren 11a Astorakema Uiki

ZUHAITZA BIA LIBRA

Bazterre behin kata bat eibar izendko da egun batean joanzen
 den doro eta orosi zuen zuhaitz txiki bat eta postu ziron egunok
 eta zuhaitz txikia zegoen da ez zuen inoiz ez zuten haindik
 da egun batean katuak elkarrekin auzalera joan ziren
 eta katuak joan ziren gurek urteratzen gurekin eta bat
 orosi zuen eta Eskolara auzalera ziren katuak eta zuhaitza
 eta eronizutea materialak elkarrekin mugatzen, lantzen eta gona
 Eskolan eskolaren oronizutea joan ziren duen oronizate
 gailu eta jolas lan egon ziren eta an katuak elkarrekin eta
 joan zuten elkarrekin joan ziren